

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala**

Derioko Udalaren 2025eko urriaren 6ko 2025-576 Dekretuaren laburpena. Dekretu horren bidez, kirolarien bidaiak eta dietak lehia lehiakorragatik emateko deialdia onartu zen. BDNS (Identif.): 860640.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/860640>).

Lehenengoa. — Onuradunak

Diru-laguntzaren xede den kirol-denboraldi bakoitzaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen Derion erroldatutako edozein pertsona fisikok jaso ahal izango du laguntza hau, baldin eta, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzez gain, diru-laguntzaren xede den lehiaketan parte hartu izana egiaztatzeko baldintza betetzen badu.

Bigarrena. — Helburua

Deialdi honen helburua da EAETik kanpo lehiaketa federatuko bidaiak eta dietak egiteak Derion erroldatutako pertsoneri eragiten dizkien gastuak finantzatzea, Derioko kirolarien artean kirol-jarduera federatua sustatzeko.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2024ko urriaren 24an argitaratutako oinarriak.

— www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/10/BAO-2024a206.pdf

Laugarrena. — Zenbatekoa

2025eko ekitaldirako laguntza hauetarako diru-zuzkidura 4.000 eurokoa izango da gehienez, eta laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako gastuaren %50 izango da, kirolari bakoitzeko 400 euroko gehieneko mugarekin, aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren mugaraino. Eskaera gehiegi dagoelako aurrekontuko kreditua ez balitz nahikoa %50 hori ordaintzeko, kreditua kirolari guztien artean banatuko da, onuradun guztiek behar bezala justifikatutako gastuaren ehuneko berdina jaso dezaten.

Aurrekontu-partidan esleitutako kredituaren mugara iristen ez bada, kirolari bakoitzeko 400 euroko gehieneko zenbatekoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan: Espainiako txapelketan dagokien modalitatean domina lortu duten kirolariak. Baldintza hori betetzen duten pertsonen beren autonomia-erkidegoko organo eskudunak edo Kirol Kontseilu Gorenak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dute beren kondizioa.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 20a arte izango da.

Derion, 2025eko urriaren 6an. — Alkatea, Esther Apraiz